


# EGITURA SOZIALETIK INPOSATZEN DEN KONTROLA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultatea (Arabako Kampusua)

Gizarte Langintzako Gradua

Soziologia eta Gizarte Langintza

Maria Loreto Saenz de Ugarte Sevilla

Lehenengo ikasturtea

Unai Agote, Miren Aizpurua, Miren Aranbarri, Peio Artola, Maddi Azkune, Haritz Bereau,  
Maidor Bengoetxea, Iraide Etxabe, Kristiña Fidalgo eta Katixa Garcia.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Hipotesiak, helburuak eta galderak
3. Marko teorikoa
  - 3.1. Kontrol soziala
    - 3.1.1. Zer da kontrol soziala
    - 3.1.2. Kontrol sozialaren ulkerak desberdinak
  - 3.2. Erljioa kontrol sozialaren tresna modura (Maddi Azkune, Maider Bengoetxea eta Iraide Etxabe)
    - 3.2.1. Erljioari buruzko planteamenduak
    - 3.2.2. Erljioaren mekanismoak gizarte kontrolan
    - 3.2.3. Erljioak ezarritako rol familiarak
    - 3.2.4. Erljio katolikoak duen jarrera beste erljio edo pentsaerekin
    - 3.2.5. Erljioaren presentzia bizitza sozialean
  - 3.3. Hezkuntzaren funtzioa kontrol soziala bermatzeko (Unai Agote, Haritz Bereau eta Kristiña Fidalgo)
    - 3.3.1. Hezkuntza sistemaren helburuak
    - 3.3.2. Hezkuntzak erreproduzitzen dituen ezberdintasunak ezaugarri ezberdineko pertsonen artean.
    - 3.3.3. Hezkuntzaren metodologia
  - 3.4. Desbiderazioa, kontrol sozialaren aurrean gizabanako batzuek hartzen duten aurkako jarrera. (Peio Artola, Miren Aizpurua, Miren Aranbarri eta Katixa Garcia)
    - 3.4.1. Drogen papera desbiazioan eta estatuaren zerikusia
    - 3.4.2. Gazteen tendentzia desobeditzailea
    - 3.4.3. Marjinazioa ondorio bezala
4. Metodologia
5. Analisia: Gizarte Langintzarekiko loturak
6. Ondorioak
  - 6.1 Laburpena
  - 6.2 Hipotesien baieztatzen eta ezeztatzea
  - 6.3 Gure proposamena
7. Bibliografia

## **1.SARRERA**

Ikerketa sakon bat egiteko aukeratu dugun gaia kontrol soziala izan da. Lehenik eta behin, garrantzitsua iruditu zaigu gai hau bereziki jorratzea, ezkutuan burutzen den kontrol honek gizartearen estruktura eta antolatzeke modua guztiz baldintzatzen duelako. Honez gain, gaia aukeratzeko erabakigarria izan den beste puntu bat, gaur egungo gizartearen parte diren akademietan honen inguruko gai determinatuak ez direla eztabaidatzen izan da. Gainera, uste dugu alde positibo edo onuragarri nabarmen bat ateratzeko aukera dugula lan honekin, orain arteko azterketa gehienetan fenomeno hau nahiko abstraktuki eman delako, hau da, ez delako gai hau gehiegi testuinguru soziokultural batean kokatu eta hala izan bada ez da gizartera zabaldu. Hau guztia kontuan hartuta, garrantzitsua iruditu zaigu gure errealitatearen aspektu konkretu batzuetan sakontzea; kontrol sozialaren eragina eta honek hezkuntzan eta erlijioan inposatzen duen rola eta ondorioztat ekartzen duen desbiderazioa eta marjinazioa azpimarratuz.

## **2.HIPOTESIAK, HELBURUAK ETA GALDERAK**

Azpigai bakoitzeko hainbat galdera bururatu zaizkigu. “Erljioa eta Gizarte langintza kontrol soziala bermatzeko tresnak izan daitezke?”. “Hezkuntza kontrol soziala bermatzeko tresna garrantzitsuenetako bat al da?” eta azkenik, “gizarteko arauen aurka egiten dutenak gizartearen aldetik bazterkeria jasaten al dute?”.

Gure lanaren helburu nagusiak honako hauek dira: gizarte langintzaren papera ulertzea eta erlijioak horren gain duen eragina aztertzea, kontrol sozialaren aurrean, gizarteak hartzen dituen jarrera ezberdinak ikertzea eta hezkuntzak kontrol soziala bermatzeko zein baliabide erabiltzen dituen bilatzea eta hauek ikertzea. Helburu nagusi hauen barruan, azpigai bakoitzeko bi helburu espezifikoki azpimarratu ditugu. Batetik, erlijioak gizartea kontrolatzeko erabiltzen dituen tresnak behatzea eta honek ze eragin duen gizartean ikustea eta bestetik, erlijioak historian zehar gizarte langintzan izan duen eraginak bizirik jarraitzen duen ikustea. Gainera, hezkuntzan parte hartzen duten subjektu ezberdinak identifikatzeaz eta analizatzeaz gain, zertara bideratzen gaituzten aztertu nahi izan dugu. Eta azkenik, kritika egitea gizarteak komeni ez zaion kolektiboak baztertzeko duen ahalmenari eta hauen inguruko ikuspuntu zabal bat ematea.

Aurreko azpigaien hipotesiak eta helburuak zehaztu ondoren hainbat galdera soziologiko desberdin etorri zaizkigu burura. Lehenik, erlijioaren azpigai kontuan hartuta, zer paper hartzen du erlijioak kontrol sozialean ? Zer tresna erabiltzen ditu erlijio katolikoak kontrol soziala bermatzeko? Nola eragiten du gizartean?. Ondoren, hezkuntzako alorra ikertuta, zein da helburua eremu sozialean? zein da eragina gazteengan? Alienazioa bultzatzen du?. Azkenik, desbiderazioaren alorrean, drogek zer paper dute desbiderazioan eta zer zerikusi

dauka estatuak honetan? Estatuak zelan ematen du esku hartzea gizartean? Marjinazioa eta bazterketa kontrol sozialaren parte ahal dira? Sistema mantentzeko tresnak dira?

### **3.MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. KONTROL SOZIALA**

Kontrol hitzak esanahi desberdinak ditu gazteleraz edo ingelesez. Gaztelaniaz, egiaztapen, ikuskapen edo zaintza esan nahi du. Ingelesez, ordea, zuzendaritza eta gobernu adierazi nahi ditu. Kontrol sozial kontzeptuaren analisisian ezinbestekoa da kontrol ezartzaile formalak eta informalak bereiztea. Kontrol informal ezartzaileak familia, eskola, lana eta komunikabideak dira nagusiki. Formalak bestalde, polizia justizia eta administrazio penitentziarioa dira besteak beste. (E.Vega, 2017)

Kontrol sozial informala ezartzaileek gizarteko kide oro ezarritako arauetara moldatzea dute helburu, beraien haurtzarotik hasita. Helburu hau gizabanakoak izaera konformista bat barneratzen duenean lortzen da, kontrol ezartzaile informalengandik ikasitako ereduak esker. Komunikabideek ere oso paper garrantzitsua jokatzen dute gizabanakoen jarreretan eragiterako orduan.

Kontrol soziala ezartzeko bide informalek haien lana bete ezean, ezartzaile formalak sartzen dira jokoan, metodo zigortzaileak martxan jarritz. Hauek, delitua egiten duen pertsonari desbiatu, arriskutsu eta delinkuente izaera bat egokitzen diote.

Kontrol sozial formala Estatuak ezartzen duenari deitzen zaio eta jarrera delinkuenteak detektatzeko, kontrolatzeko eta ezabatzeko helburuarekin erabiltzen da. (Luís Gabaldón, 1987).

Hirschiren ustez, jendeak legeak errespetatzen ditu ordena sozialarekin identifikatuta sentitzen delako. Beraz, gizartearekin ditugun loturak ahultzen direnean eta ordena sozialarekiko dugun onarpena desagertzen denean delinkuentzia agertzen da. Ondorioz, hemendik aurrera gizartearekiko loturez aske sentitzen gara eta honek jarrera deliktibo batean buka dezake.

Garrantzitsua da azpimarratzea zeintzuk diren pertsona bat gizartera lotzen duten arazoak eta honek jarrera deliktiboak baztertzera eramaten dituenak ( E.Vega, 2017):

1. Lotura: Besteen iritziarekiko sentsiblea izatea, besteen pentsamenduek gehiegi eragitea gudan.
2. Konpromesua: Gizartearekiko loturan oinarritzen da, bertan dugun parte hartzearen ondorioz.

3. Parte hartzea: Gizabanakoak gizartean ohikoak diren aktibitateetan parte hartzera ohitzen badira, askoz denbora gutxiago izango dute legez kanpoko jardueretan parte hartzeko. Geroz eta denbora gehiago eskainiz gero lanari edo beste jarduera sozial batzuei (elizkizunak adibidez), askoz probabilitate gutxiago egongo da subjektuak delinatzeko.
4. Sinismenak: Balore sozialak partekatzean eta erreproduzitzean zentratzen da.

Marx, Weber, Durkheim y Parsons-ek estatuaren eta legeen goraldien ikusten dute gizartearen klabea eta beraz, baita kontrol sozial formalarena ere. Erregimen totalitarioetan edo diktaduretan, errepresioak demokrazia bateko zaintza ereduak ordezkatzeko dituzte. (Torrente, 1997).

Epistemologiaren aldetik hasita, ondorengo ideiek kontrolaren eta kontrol sozialaren arteko lotura bat egiten dute eta "kontrol" terminoa definitzen saiatzen dira (J.M. Morán ; M. Flores , 2018)

Alde batetik, Morris Janowitz soziologo errusiarrek honela definitzen du kontrola: Talde sozial batek printzipio moral eta legitimo batzuei dagokienez bere burua definitzeko gaitasunaren aurrean ematen den erantzuna, honek ezarritako kontrolaren gutxiespen bat eraginez gero. Beste alde batetik, Pedro Oliver Olmo historialariak uste du kontrola ordena soziala ezartzeko tresna bat dela eta gizakiaren gizarteratzea promozionatzeko eta desbiderazioen zigortzaile gisa funtzionatzen duela. Funtzio hau, gainera, instituzioen bitartez betetzen dela azpimarratzen du. (322.orr.)

## 3.2. ERLIJIOA

### 3.2.1. Erljioari buruzko planteamenduak

Nietzscheren planteamenduari dagokionez, erlijioa beste kontzeptu asko bezala, metaforetan eta imajinazioan oinarritzen da, hau, egunen batean errealitate gogor bati aurre egiteko asmatu zituztelarik, eta kontzeptu hauek egi absolutu eta zalantza ezinezko bezala sortu zituztelarik. Bestetik, mendebaldeko kulturaren egitura nagusia, egunerokotasunari dagokionez, kristautasunean oinarrituta dagoela dio. Morala, kristaua dela, nahiz eta pertsona batzuk euren burua ateotzat duten, kristautasun oinarritzat duen kultura da mendebaldekoa. Erljioak egin duena, mendeetan zehar gure kontzientziak egituratzea, izan da. (Crespo Sanchez, F.J., 2014:26-115)

Bestalde, Foucaultek dio, egia fikziozkoa dela eta bertan interes batzuk ezkutatzeko direla, armadura gisa, arbitrarioki, munduak egitura bat izan ezan. Baina berak dio, hau apurtzea beharrezkoa dela, esklaboak izan nahi ez badugu, ahalmena duen estruktura eta mendeko

gaituena apurtuta. Hau egin ezean, mundua dominatzailearen ikuspuntutik ikustera behartuta gaudelako. Aitzitik, planteamendu batzuk egin zituen, funtzionamendu sozialaren inguruan, zehazki jakintzaren inguruan. Jakinduria eta boterearen arteko lotura adierazten du. Erljioa mendeetan zehar diskurtso boteredun baten modura eta pertsonen borondatea edo nahimen diziplinatua sortzeko erabilia izan dela dio, pertsonen pentsamenduaren jabe egiteko eta izaki obeditzaileak eta inizatiba propiorik gabeak sortzeko. Besteak beste, erlijioak elementu kontrolatzaileak ezartzen ditu, esparru intimoenetan; desira, eta instintuetan. Zainketa konstante batekin gure bizitzak kontrolatzeko prestatutako bidea jarrai dezagun. Honekin, interes ezkutua daudela kristautasunean azpimarratzen da, instintu sexual naturalak ezkututzea, hauek kontrolatu eta ordezkatzeko arauak ezarriz, instintu erreprimitu bakoitza kontrolpean izateko.

M. Harris en ikerketak, berretsi egin dituzte Foucaulten tesiak, aginte erakunde eta inposaketa gogor, diziplinatu eta eklesiastikoak kontrol politiko nahiz ekonomikoan erabiliak izan direla, talde sozial batzuen onurarako, soilik.

### 3.2.2. Erljioaren mekanismoak gizarte kontrolerako

Hasteko, erlijio katolikoaren, kontrol mekanismoei dagokienez, beldurrak, frustrazioak areagotuz doaz obedientzia politikoan, sinesmenak kontserbatzeko eta klase sozial batzuen onurarako. Lehen aipatu bezala, baita ere konformismoan erortzeko eta borrokarako indarrak galtzeko. Hemen argi utzi behar da ordea, erlijio instituzionalizatuari buruz ari garela, erlijio katolikoari buruz hain zuzen ere.

Baina eliza honek, bere jatorritik, erabili ditu oso baliagarri izan diren mekanismoak, ezarritako dogma horien barnean mantentzeko pertsonak, eta sinesmendunak ere bertan jarraitzeko. Erabili izan dituzten mekanismoak, hurrengo hauek izan dira: Buruzagitza eztabaida ezina, honekin buruzagiak esaten duen gauza oro ukatzina egin eta miresgarria eginez, hau beti autoritatearen irudia beteko duena izango da. Tradizionalki konfiantza eta sineskortasuna transmititzen dutenak izan direlarik.

Bestetik, kontestuaren kontrola, hierarkia erlijiosoak kontestua ere kontrolpean izan behar du, kontrol sozial honek aurrera jarri dezan, eta ongi prestatua izan behar du eliza, zuzenki pertsonak bertara urbiltzeko, sinbologiaz beterik eta entzuleak zerbait nagusitzat har dezaten, zerbait bakarra izango balitz bezala. Honek funtziona dezan, bertako usain, musika, kolore, tenperatura, eta arkitektura ditugu adibide, besteak beste.

Aitzitik, elizak esan dezakegu guztiarentzat erantzuna duela, nahiz eta zerbait kontra esangarria izan, esperientziak edo logikak kontraesankor egin. Elizak bilatzen duena, entzuleen konformazioa eta uka ezintasuna da sinestunengan, hauek ez dituelako idatzi

sakratuak interpretatzeko gai ikusten, eta ez direla gai sinesten dute, beraien hitza horrela ez da zalantzan jartzen.

Baita ere, erlijio katolikoa jarraitzen duen orok, bide amankomuna dute, jatorrizko bekatua ezarrita dutenez jaiotzatik, eta guztiek hil ondoren zerura joan nahi duten, bertan baitaude pertsona “on” guztiak. Jatorrizko bekatu horrekin jaiotzen garenez, ezin dugu bekatu gehiagorik egin eta fededunak eta jokaera zuzeneko pertsonak izateko erlijioak ezarritako pausuak jarraitu behar ditugu, horrela jatorrizko den hori, uztera iritsiko gara. Beraz jaio eta berehala bataiatuak izan behar gara, gure arima garbi mantentzeko, eta kristautasunak ezarritako bidean sartu eta jarraitu behar dugu.

Bestetik, badu beste kontrol mota bat, emozionala izango litzatekeena. Honi dagokionez, fideltasuna eta atxikimendua ziurtatzeko, pertsonen jokaera saritzean eta zigortzean oinarritzen da, horrela emozioak kontrolpean izanik. Jokabide saritua, espero den jarduera egitean datza, eta zigorra erreprimitu nahi den jokabidean ezartzen da. Baina zigor eta sari hauek, erlijioak soilik eman ditzakeenak dira, beraz pertsonak ezin dute beste bide bat jarraituz hau lortu, zerbait materiala ez direlako, eta horrela obligazio moduko batean erortzen da gizakia. Baina zigorrari dagokionez, hautatzen duten zigor hau, bazterketa soziala, umiliazio publikoa edo mespretxua izaten denez, dogma komunitario horietatik aldentzea zaila izan ohi da, ez delako zerbait onuragarria.

Beste kontroletako bat, sexualitatearekikoa da, hau kristautasunaren hasierakoa delarik, bekatua kontsideratu izan baita plazer sexuala, intrinsikoki zerbait okerra izango balitz bezala. Hemen familia tradizionala bultzatzen du kristautasunak, horrela kaos sexualik ez dadin sortu, honen aurrean familia kristauak sortzeko zailtasuna ikusten baitu, eta jendeak pausu horiek jarraitzekoa.

Aurrekoarekin lotuta, elizak baita ere, gizartea kontrolpean izateko, dogma kristauak zalantzan jartzen dituzten hainbat liburu debekatu izan ditu, kristaudentzat arriskutsutzat hartzen dituenak. Erlijioak errepresentatzen zituen gazte pasiodun hauek, irakurri edo ezagutu ezkeron nola maitatu edo plazera sentitzea zer zen, bide okerretik eraman zitzakeen, lizunkerian edo haragiaren plazerean erorita, eta hau ez da bere interesekoa, jarraitzaileak galtzeko arriskua dakarrelako. Gaur egun esan beharra dago, katolizismoaren muturrak, Opus Deik oraindik ere, debekatuta dituela liburu batzuk. Baita lehen aipatutako idazleen liburu batzuk ere, Nietzsche eta Foucaultenak besteak beste.

Infernuari dagokionez, kristautasunaren asmakuntzetako bat izan da hau ere, eta baita deabrua, kontziente izanik iruzur honez. Bere interesa baita horrela sinestea, eta baita gizakia bekatari izatea, amarru gisa. Horrela, bekatari sentitzen den orok, bekatua garbitu edo eskulpatu nahi izango du, eta hori da erlijioaren interes nagusia. Horrela, fedeak eta esperantzak lotuta, batuta eta dominatua mantenduko baitu.

Aurrez aipatu bezala, eliza bere jatorriaz baliatu da fededunak kontrolatzeko eta beraien dogmen barne egoteko. Erlijio diskurtsoa beste diskurtsoen aldean ezberdina da , ezaugarri ezberdinak dituelako . Batetik esan beharra dago , diskurtso horien mamia oso espezifikoa dela eta bertan erabiltzen den hiztegia ezin dela beste edozein diskurtsorekin alderatu. Izan ere argazki eta irudi asko erabiltzen dituzte hiztegi deskriptiboa erabili beharrean eta emozio eta sentimendu asko erabiltzen dituzte bizitzaren interpretazioa egiteko . Beraz esan dezakegu hizkuntza erlijiosoak, hizkuntza sinbolikoa dela eta objektu enpirikoez baliatzen dela. Hizkuntza honekin beraz esan dezakegu ezin dela teoria bat asmatu , hizkuntza hau subjektiboa delako eta esplikaezina esplikatzen saiatzen da . (Picazo Tadeo, M. , 2014)

Baina hizkuntza hau ez da katolizismoa azaltzeko soilik erabiltzen , estruktura politikoak , ekonomikoak, sozialak... aldatu nahi ditu .Baina bertan hasten dira arazoak hizkuntza honentzako , bertan aurkituko duen jendeak errealitatea oso barneratuta izango duelako eta sinboloak eta objektu enpirikoak ulertzea zaila egingo zaielako. Beraz hizkuntza hau erabiltzen dutenak hainbat eta hainbat estrategia dituzte arazo horri aurre egiteko ,beraien hitzak ulertuak izateko ,beraiek defendatzen dituzten estruktura mantendu eta beraien alde dagoen biztanleriarekin geratzeko.

Baina katolizismoaren buruzagiak konturatu ziren hizkuntza horrek arrazoia ere erabili beharra zuela jendea konbentzitzeko eta honen bidez emozioetara iristeko . Hala pertsona ahul geratuko litzateke eta errazagoa izango litzateke konbentzitzea eta elizarekin bat egitea. Beraz entzuleari iristeko eta euren emozioak ukitzeko pertsonak barnetik ezagutu behar zituztela deritzoten . Hala beldurrez, heziketaz eta doktrinamenduz baliatu ziren pertsonen pentsamenduak aldatzeko .

Tesi honek diskurtso erlijiosoak erabiltzen dituen baliabideak aztertzeke eta honen gaitasun iraunkorren oinarriak aztertzeke testu batzuk analizatzen ditu . Eta hala hainbat ondorio atera ditu , horietako bat hizkuntza erlijiosoak ekintza mota bat dela eta gizarte demokratikoetan geroz eta botere gehiegieria handiagoa duela azaltzen du .

Beraz laburbilduz esan dezakegu hizkuntza erlijiosoak, beste hizkuntza mota bat dela bere berezitasun eta ezaugarriekin . Hizkuntza hau bizitza ulertzeko modu bat dela esan dezakegu . Baita ere esan dezakegu , hizkuntza hau metafora bat dela, mundua interpretatzeko eta egunerokotasuneko arazoei aurre egiteko metafora bat. Gainera duda gogorrenen aurrean erabakiak hartzea da erlijioen helburu nagusienetako bat .Baita egonkortasuna bakea eta segurtasuna transmititzea ere.



Azkenik esan beharra dago , gaur egun erlijioen gaia “modernizatu” egin dela , hau da , komunikabidetan sartuta dagoen gai bat dela eta oso erraza dela beraz sarean honen inguruko bide , dokumental ,anuntzio edota web orrialdeak aurkitzea .

### 3.2.3. Erlijioak ezarritako rol familiarrak

Aurrez aipatutako diskurtsoetako batzuk familiako kide ezberdinek bete behar dituzten rolez hitz egiten dute. Esaten dena zera da , emakumezkoa ama lanetan ibiltzen zela eta seme-alabekin harreman sendoagoak izaten zituztela , eta hala izan da Erregimen Zaharretik gizarte liberala ezarri zen arte.(Crespo Sánchez,F.J. , 2014)

Familiako kideen rol en aldaketak ulertzeko beharrezkoa da aitaren papera nola aldatu den ikustea. Horretarako aitatasunaren papera zein aspektuk eratu duten jakin beharra dago, eta hala familia osoko aldaketak eta eboluzioak aztertzekeo gai izango gara .

Paper hau aztertzekeo prentsako bi artikuluko erabili dituzte tesi honetako idazleak , batetik “El estudio del padre en su relacion directa con la familia y el hogar” eta bestetik “El analisis de la idiosincrasia del hombre en el mundo exterior”. Bertan azaltzen da aita edo gizonezkoa zela ordena sozialean lehenengo postuan zegoen pertsona eta beraz bera zela familia bat eraikitzekeo oinarria .

Knibiehler ek , emakumearen historian inguruko jakitunak , zioen historian zehar 3 aitatasun ezberdin bereizi genitzakeela , lehenik eta behin , antzinaroko aitatasuna , zeinetan aita zen familiako liderra eta botere osoa bere esku egongo litzatekeena . Bigarrenik , XII. mendearen eta Frantziar iraultzaren artean kokatuko genukeen aitatasuna egongo litzateke. Aitatasun mota honek nahiz eta boterearen zati handi bat izan errespetu gehiago izango luke emakumearekiko eta seme-alabekin gutxiengo harremana izaten saiatuko litzateke , hau da , bere aldetik zerbait jartzen hasi zen familia hori aurrera eramateko eta gutxiengo interes bat erakutsi zuen familiarekiko . Azkenik , aro garaikideko aitatasunaz hitz egiten du, eta bertan azaltzen du emakumeak indar handia hartu zuenez gizonezkoak familian zuen boterearen maila asko jaitsi zela eta oreka moduko bat sortu zela.

Hainbat historialari , horietako bat Flandrin, aurreko mendeetarako konturatu ziren familia bat era monarkikoan eraikita zegoela eta gizonezkoa zela monarkia horren goian kokatzen zena. Hala emakumeak beraien esku zeudela uste zuten eta hala biolentzia kasu asko ematen ziren baina gizonezkoak ez ziren errudun sentitzen. Familia horietako haurrei dagokionez, emakumeekiko gauza bera gertatzen zen eta ez zuten izaten izan beharko litzuketen eskubideak. Historialari hauek ateratako ondorioekin baieztatu da gizonezkoa izan dela XVII eta XIX. mendeetan gizarteko eta familiako botere osoa zuen gizakia , eta hala historian zehar bizitza pribatuko dominantetzat hartzen da .

Gai hau gehiago aztertuz, emakumezkoen erabakiak gizonezkoek hartzen zituztela ikus dezakegu. Izan ere emakumezkoak gizonezkoen atzetik baitzeuden eta nahiz eta ez gustatu egin behar zutena, gizonezkoek agindutako guztia egin behar zuten, esklabo modura, azken finean beraiek baitziren dirua etxera eramaten zutena. Rol hauek XIX. mendean zehar ere segi zuten indar zibilaren eta elizaren laguntzarekin baina XX. mendean hauek aldatzen joan ziren ideologia ezberdinak sartu baitziren gizartean.

#### 3.2.4. Erlijio katolikoak duen jarrera beste erlijio edo pentsaerekin

Etsaiaren aurrean, honen deskalifikaziorako, ekintza eta ekitaldi txikiez baliatzen dira, eurak onak direla esaterako unean, eta besteak okerrak direla baieztatzeko. Besteen, akzio topikoak aipatuz eta honen helburua besteei prestigioa kentzea delarik, adibideak eta baieztapenak bilatzen ditu etsaiarenak, honekin kristautasunaren ontasuna azpimarratu nahi izaten delarik. Baita ere, esan beharra dago, hartzailea biktimizatzen saiatzen dela, zuzenki sufriaraziz eta etsaiaren jokaera bera duela sentiaraziz. Honekin, hartzaile honek nahiko errekurso izango duenez, etsaiaren aurka egiteko, beharrezkoa sentituko du hori egitea eta manipulatzaileak eskaintako laguntza hartzea. Baina gehigarri gisa, eskaintzen den informazio hau ez dela erabatekoa esan daiteke, urria, garrantzirik gabekoa eta partzialtasunik gabea izaten delako, etsaiari eragiten dion heinean. Horregatik, ezin da argumentazio zuzenik egin, informazio faltsu eta distorsionatuaren aurrean. Kristautasunareztat onuragarria ez den zerbait, eliza katolikoaren dogma horiek zalantzan jar ditzakeen edozer arriskutsu izan daiteke honentzat beraz, etsaia bihurtzen da. Adibide ditugu, historian zehar gertatuko hainbat gauza, besteak beste: Juan Gines de Supelvedak indiarren aurkako gerran honako kausa hauek aipatu zituelarik:(Crespo Sanchez, F.J., 2014:155-157)

“Compara ahora, escribe Sepúlveda, la prudencia, la inteligencia, la grandeza de alma, la templanza, la humanidad y la religión de estos hombres ( los españoles) con estos subhombres ( los indios), en quienes apenas se encuentran rasgos de humanidad, que no solamente no tiene ningún saber, sino que no tienen ni uso ni conocimiento de la escritura, que no conservan ningún monumento de historia salvo un vago y oscuro recuerdo de las cosas consignado en ciertas pinturas, ninguna ley escrita, sino ciertas leyes y costumbres bárbaras.”(Batalillo, 1976:408)

Aitzakiatzat erabili zuten, indigenak sakrifikazioak egiten zituztela gizakiekin esanez, esklabitate arrazoitzeko. Beraien erlijio edo gurtzeen jatorriak deabruan oinarritzen zirela zioten, horrela kolonizazioa justifikatuz eta beherakada demografikoak herrialde indigenetan. Baita ere, adibide aipagarria dugu, misiolariak ziren, aita Le Nobletz eta Maunoirren adoktrinamenduak indioekiko. Bi koadro erakusten zizkietelarik, paradisua eta infernua

izendatuta, bietako bat aukeratu zezaten, paradisua soilik erlijio kristauak ekar zezakeela adieraziz eta infernurako bidea izango zela beraien erlijioa jarraituz gero.

Juduen aurkako borroka ere, modu berean izan zen. Gutxiengoa ekintzaile, asimila ezin eta arrakastatsuak, gaizki absolutua modura identifikatu, gorrotatu eta jarraituak dira. Antzerki obra kristauak, judaismoaren aurkako katekesiak izan dira. XIV eta XV mendeetan, ikusleei juduak gorrotatzeko bideak ireki zitzaizkien, horrela gaizkiaren, itsutasunaren eta koldarkeriaren estereotipoa jarritz, israeldarrei, albo batera uzteko nahiarekin. Lutero beraren hitzak ditugu adibide gisa:

“Para hacer desaparecer esa doctrina blasfema habría que prender fuego a todas sus sinagogas, y si quedase alguna cosa después del incendio, recubrirlo de arena y barro a fin de que no se pueda ver la menor teja ni la menor piedra de sus templos....Que se prohíba a los judíos, entre nosotros y en nuestro suelo, bajo pena de muerte, alabar a Dios, rezar y cantar.” (Delumeau, 1989: 443)

Gizarte guztiek erabiltzen dute, imajinario eta erretolika erlijiosoak, adostasun absolutu bezala. Gizartean justifikazio erlijiosoak ematen zaizkie arazoei arau kultural orokor gisa (bereziki ezkontza eta erreproduzioari dagokionez, honek zeharka sor ditzakeen beste gai batzuekin). Jarrera onartuetatik haratago behartuta, erlijioak legitimitatea ematen dio egunez egungo sistema politikoari. Bereziki, Erdi Aroko Europan gobernatzaileak, erregea nahiz enperadoreak, jainkoarengandik jasotako agindua zuela, eta jainkoak berak nahi izanda zegokiola gobernari izatea. Gaur egungo egoerari dagokionez, erlijioari esplizituki tartea eskaintzen dien lider politikoak ez dira asko. Baina bestetik, gero, jaikoaren bendeinkazioa eskatzen, edo desiratzen dute. Beraien akzio hauek inplizituki zuzenak eta justuak izan direla erakutsi nahi dutelako publikoki. (Macionis. J.J, Plummer. K., 1999).

### 3.2.5. Erlijioaren presentzia bizitza sozialean

Eliza katolikoak eragin handia izan du gure herrialdean . Katolizismoak gure gizartean hainbat ohitura eta tradizio sartu ditu historian zehar , eta gaur egun ohitura eta tradizio horiek baztertzea oso zaila da, oso barneratuta ditugun tradizioak direlako. Nahiz eta gaur egun pentsamendu katolikoa duten pertsonen kopuruak behera egin , erlijio zeremoniatan parte hartzen duten pertsonen kopuruak berdin jarraitu du. Gure egutegiko jai egunak aztertuko bagenitu, horien %90ak gutxi gora behera arrazoi erlijiosoak dituzte , adibidez, Gabonak , igandeak jai egunak izatea , aste santuak etab.(Picazo Tadeo, M. , 2014)

Gure gizarteko hainbat gertakaritan ere katolizismoaren lidergoen ideiek beraien presentzia dute. Adibidez, Valentziako gotzainak, bertako unibertsitate publikoko aurkezpenean parte

hartzen du eta unibertsitate horretako irakasleen kontratazioak eta kalerapenak pertsona elizkoien esku daude. Hainbat presidentek, beraien kargua lortzeko, jainkoa aipatzen dute beraien hitzaldietan, horietako bat , Iñigo Urkullu Renteria izan zen 2012an .

Beste hainbat ospakizun ere baditugu erlijioaren harira, hainbat eta hainbat omenaldi egiten dira akzidentetan hiltzen diren pertsonentzat , bikote asko eta asko ezkontzen dira elizatik, nahiz eta horien kopurua asko jaitsi azken 10 urtetan ,eta hauek izandako haurrak ere elizatik batailatzen dituzte .

Elizak beste hainbat esparrutan ere hartzen du parte , besteak beste moral sexualaren eztabaidetan eta beraien iritziak askotan telebistan , irratian edota beste hainbat komunikabidetan azaltzen dira.

Beraz laburbilduz esan dezakegu gure gizarteko esparru gehienetan pertsona elizkoiek parte hartzen dutela eta beraz erlijioak eragina duela gure bizitzetako ohitura eta tradizioetan. Baina elizak, egunero ateratzen dituen idatzietan ikus dezakegun bezala , gure konstituzioko eta demokraziako printzipioen aurka egiten du ,betidanik zigortu izan ditu homosexualak , emakumea diskriminatu du, beti bereizi izan ditu emakumezkoak eta gizonezkoak heziketako orduan sexuaren arabera , eta ez ditu onartu nahi izan zientziaren aurrerapenak historiako hainbat momentutan .

### 3.3.HEZKUNTZA

#### 3.3.1. Hezkuntza sistemaren helburuak

Edozein herriko hezkuntza-sistema gizartearen funtsezko oinarria da. Marko teoriko honetako mamian barneratu baino lehen, testuinguru txiki batean kokatu ahal izateko, gaur egun Espainiak duen heziketaren eskema txiki bat egin beharko genuke:

Espainiako hezkuntza, “Hezkuntza Ministerioak” arautzen du. Administrazio hau, ez diskriminazio, kalitate printzipioek, lankidetzak, zuzentasunak, aukera-berdintasunak, irakaspen askatasunak, merituak, baliabide publikoetako, gardentasuneko eta kontuak emateko esleipeneko eraginkortasuna printzipioek gidatzen dute. Heziketa nahitaezkoa eta doakoa da 6 urtetik 16 urtetara, nahiz eta familiek liburuak eta klasean erabiltzen diren materialak ordaindu behar izan. Azken bigarren mailako zikloa, 16etatik 18 urtetara doana, doakoa da ere. Goiko heziketa jada ordaindu egin behar da baina estatuak matrikulatzeko zati batzuk finantzatzen ditu. Badaude zentro itundutako eta pribatuak ere, eliza katolikoarekin erlazionatuta egon ohi direnak eta ordainketak etapa guztietan direnak.

Hezkuntza-sistemak etapa desberdinak bereizten dituen bezala helburu desberdinak ere bereizten ditu, baina zeintzuk dira heziketan lantzen diren helburu horiek? Zein da hezkuntzaren helburua eremu sozialean?

Sarean hainbat iritzi desberdin daude helburu hauen inguruan. “El ideal educativo es el proceso educativo mismo, no hay un objetivo fijo al que dirigirse, porque el proceso educativo significa crecimiento y éste no tiene un fin, las que tienen finalidades son las personas que intervienen en los procesos educativos” (DEWEY, 1988). “La educación, en general, trata del desarrollo del niño en su totalidad, no solo de su capacidad académica” (GERVER, 2018). “Una sociedad que apoye la reproducción social consciente debe educar a todos los niños para que sean capaces de participar en la definición colectiva de la sociedad” (Guttman, 2001). Azkenik, wikipedian sartu ezkeru hau aurkituko dugu, erabakiak hartzean heldutasuna sustatzea, nor bere buruaren ezagutza, inguruaren ezagutza eta inguruak eskain dezakeenaren ezagutza nahiz plangintza egiteko egokiak izango diren jarreraren ikaskuntza bultzatuz. Pertsona bakoitzak lanbideari dagokionez dituen ametsak eta irudiak egia bilakatzen laguntzea, gehienetan osatu gabeak izaten baitira eta estereotipoetan oinarritzen baitira; bide horretatik erabakiak kontzienteki eta arduraz hartzen lagunduko diogu. Ikasleak tradizionalak ez diren lanbideak aukeratzera bultzatzea. Bizimodu profesionalaren eta pertsonalaren arteko jarraitasunaz ohartaraztea (2017).

Estatu Espainolak badu helburu jakin hauen inguruko hainbat lege eta honako hau esaten dute:

- Konstituzioko 27.artikula:

Hezkuntzak pertsona bakoitzaren nortasunaren garapen osoa helburu izango du bizikidetasuneko printzipio demokratikoekin eta eskubideekin eta funtsezko askatasunekin errespetuan.

- LOMCE:

Trebetasun multzoa, ezaguerak eta bizitzako arazo errealei era eraginkorrean erantzutea egoera desberdinetan erantzutea baimentzen duten jarrerak areagotzea du helburu. Ateak zabaltzea prestakuntza altuko lanpostuei, eta etorkizun hobe bat irudikatzen duten atek zabaltzea.

Hezkuntza mailak, bizi ibilbidearen itxaropena eta helburuak determinatzen ditu, bai arlo profesionalean eta pertsonalean. Ezaguera-multzoa, baliabideak eta pertsona bat bere helburuak arrakastarekin betetzeko gaitasuna ematen duten ikasketa erreminta izan behar da hezkuntza.

- LOE:

Hezkuntza pertsona baten nortasuna eraikitzekeo tresna egokiena da, norberaren ahalmenak maximoan garatzeko, berezko identitate pertsonala osatzeko eta, ezagutza bidezko dimentsioa, txeratsua eta axiologiako osatuz, errealitatearen ulermena itxuratzeko. Gainera,

heziketa egokiena hiritartasun demokratiko, arduradun, libre eta kritikoen ariketa bat egiten duen gizarte bat sortzen duena da.

Proposatutako helburu jakin hauek oso ondo daude baina helburu hauek praktikan jartzen al dira gaur egungo heziketan?

Helburu hauen aurrean badaude hainbat tesi non helburu hauek zalantzan jartzen diren, Arbués-ek esanez, “podemos concluir que, tras cursar la materia, los alumnos mejoran en conocimientos teóricos de forma significativa. Pero no parecen mejorar en la misma medida en valores personales, valores sociales, actitudes democráticas y de participación y actitudes de compromiso social. Esto nos lleva a pensar que, tal y como está diseñada, la materia no cumple en su totalidad la finalidad para la que fue planteada” (2011).

Bestetik, badaude beste arazo batzuk hezkuntza sistemaren praktikan, politikaren gehiegizko esku-hartzea dago. Gazteak, irakasleak, familiak eta gizarte gaizki diseinatutako, zaharkitua, aldagaia eta norik gobernata dezan araberako ideologizatutako hezkuntza baten biktimak dira. Hau da, gehiegizko parte hartze politikoa dago hezkuntzan, zer eta nola erakusten dugun.

Honen adibide Finlandia ikusi dezakegu, “todos hablan del éxito en Finlandia, que se construyó sobre un sistema controlado y desarrollado por educadores y no por políticos. Finlandia ha tenido estabilidad y consistencia durante 15 años, lo que ha permitido que su sistema florezca basándose en lo que es correcto para los niños y no para la ideología política” (GERVER, 2018).

Helburu jakin batzuk proposatu ezker, lehendabizi hezitzaile batek proposatu beharko lituzke eta ez politiko batek. Herritar kritikoak sortzeko helburuaz, ideologiarik ezingo litzateke bermatu. Hau da, partidu politiko, ideologiarik edota arau hierarkikorik egon gabe. “La educación debe estar muy lejos del control y del apoderamiento” (GERVER, 2018).

### 3.3.2. Hezkuntzak erreproduzitzen dituen ezberdintasunak ezaugarri ezberdineko pertsonen artean.

Hezkuntzak gazteengan ez du bakarrik beraien beraien ezagutzan eragiten. Ikastetxeetan hezten doazen bitartean, beraien esperientzia desberdinek asko baldintzatzen dute hauen izaeretan. Hezkuntzan jasotako tratuak guztiz alda dezake gazteen errendimendu akademikoa, eta teoria desberdinek erakusten dutenez, arraza, genero eta beste hainbat ezaugarriengatik jasotako harremanak beraien bizitza bideratzen dute. Hemen ikusi ditzakegu Macionis eta Plumerren liburuan agertzen diren teoria ezberdinak gai honen inguruan:

Errendimendu akademikoari eragin diezaioken «Pedagogia ikusezina» (Bernstein, 1977) edo ezkutuko estratifikazioa existitzen da eta, beraz, ikasleen etorkizunari eragiten dio baita ere. Erresuma Batuko ikasgelen barruan egindako ikerketek frogatzen dute irakasleak inpartzialak izaten saiatzea posible dela, baina, gainerako banakoak bezala, irakasleak kulturalki baldintzatuta daudela bere ikasleak beraien ahalmen akademikoarekin zerikusi urria duten ezaugarriengatik ebaluatzeko, honen ordez, adibidez, bere kanpoko itxura, nortasuna, gogoia, edo otzanarengatik ebaluatu ohi baitzaie (Hargreaves, 1975). Ohikoa da, mutilei arreta gehiago jartzea neskei baino, ikasgelan parte-hartzeko aukerak emanez (Stanworth, 1983) eta baita arraza zuriko ikasleei arreta gehiago jartzea arraza beltzekoei baino. Era berean, jatorri asaiatikoko umeei adibidez, normalean pasiboak direnaren estereotipoa jarri ohi zaie (Brah eta Minhas, 1988). Irakasleek ikasle desberdinak etiketatzen dituztenean, (“ergel ala “gaizkile” etiketekin adibidez) askotan ikasle hauen interes edo motibazio falta ekartzen dute, eta ondorioz beraien errendimendu akademikoan beherakada nabarmena egon ohi da.

Hezkuntzako analisisetan polemika asko ekarri dituen beste puntu bat klase sozialen artean eragiten den ezberdintasuna da. Gatazka hau aztertu duten ikerlariak diotenez, hezkuntza, klase ezberdintasunen egitura erreproduzitzeko tresna bat da. Hezkuntzak kontrol soziala bermatzeko eta orden sozialaren onarpena sustatzeko funtzioa egiten du. Mekanismo ezberdinak direla medio, hierarkia soziala sustatzen da gazteengan.

Desgaituek tratu berezia jasotzeak sekulako polemika eragin du soziologo desberdinen artean. Batzuen ustez, derrigorrezkoa da desgaituek heziketa berezi bat jasotzea, beste batzuen ustez berriz, hezkuntza berezi bat jasotzeak, desgaituak gizartetik at gelditzea baldintzatzen du. Macionis eta Plummerrek honela azaltzen dituzte teoria ezberdinak:

Historikoki, desgaitasun ezberdinak dituzten umeak sozializatzeko prozesuetara bideratuak izan dira. Prozesu hauek, arrakasta aukera urritakoak izan dira, bai ikasketetan eta baita lan munduan. Urte askotan zehar, britainiar sisteman sozializatzeko prozesu hauek desgaitasunak zituzten umeak ikastetxe berezietan batuz egiten ziren, behar heitzaile bereziak behar zituztelakoan. Gorrentzako, itsuentzako eta elbarrientzako ikastetxeak erabili ohi ziren lehen. 1944eko hezkuntza lege berriak ordea, ume desgaituak ohiko ikastetxeetan matrikulatzea behartzen zuen, baina praktikan ikastetxe lokaletan erraztasunak ematen zitzaizkien arazoak zituzten ume hauei. Behatzaile batzuk ikastetxe bereziak beharrezkoak direla diote (adibidez, gorrek zeinu hizkuntza ikasteko), beste batzuek aldiz ikastetxe hauek beraien desgaitasunak sustatzen dituela esaten dute. Hezkuntza mota berezi hauek konbentzionalak baina kaskarragoak direla baieztatzen dute: hala ikasle desgaituek asignatura gutxiagoetarako aukera dutela; irakasleek itxaropen baxuagoak izan ditzaketela; eta kurtso akademiko berezi hauek desgaituak bizirautean zentratzen direla, hauen ezagutza akademikoan zentratu beharrean. Azkenaldian ikastetxe britainiar hauei buruz egin diren hainbat ikerketetan, ikasle desgaituek arrakasta aukera txikiagoa dutela erakusten da. (Tomlinson, 1982).

Etnia ezberdinetako pertsonen arteko desberdintasun akademikoak oso agerian daude. Hainbat soziologoren esanetan, kanpotik datozen gazte etorkinak zailtasun eta egoera okerragoak pairatzen dituzte hezkuntzan sistematizatutako arrazakeria dela eta.

Etnia asko pilatzen diren herrialde gehienetan sekulako diferentziak ikusi ditzakegu etnia hauen arteko errendimendu akademikoen artean. Britainia Handian egindako ikerketetan, Swann batzordean (1982) adibidez, eskola porrota ikasle afrokaribearretan asiaticoetan baino handiagoa zelako ondorioa iritsi ziren, eta baita bi etnietan mutilen artean eskola porrot gehiago aurkitzen zirela nesketan baino. Gainera, Asiatik datozen neskek emaitza hobeak izan ohi dituzte mutil zuriek baino. Garbi dagoen gauza bakarra ume beltzak eskola porrot gehienak jasaten dituztela da. Honen arrazoi nagusia, ikastetxeetan gizarteko kultura nagusia sustatzen denez, gutxiengo etnikoetatik datozen ikasleak beraien kultura alde batera utzi eta bizi diren gizarteko kulturarekin bat egitea behartzen zaiela da. Adibidez, ume askok beraien jatorriko kulturarekin ez dute nahi loturarik galdu eta beraien ama hizkuntza eta erlijioa mantendu nahi dituzte. Honek hainbat gatazka eragin ditzake eskola ezberdinetan, askotan ikastetxe ezberdinetan gizarteko kultura eta baloreak sustatu nahi dituztelako beste guztiak alde batera utzita. Asimilazio politikak erabiliz, abusu larrienak eman diren ikastetxeetan hainbat prozesu antiarrazista jarri dituzte abian. Azken urte hauetan, multikulturalismoa sustatu da, kultura aniztasuna positiboa dela argudiatuz (veas Gioux, 1992).

Azkenik, hainbat soziologok gogor salatzen dutenez, generoen artean ezberdintasun garbi bat islatzen da hezkuntzan, hau da, ikasleen generoen arabera tratu ezberdinak ematen dira hala genero rola eta estereotipoak sustatuz.

Britainia Handiko ikertzaile feminista batzuek, desagertuta jarraitzen duen Sue Lees, Christine Griffin, eta Angela McRobbie haien artean, neska gazteak elkarrizketatu dituzte haien feminitatea hain gaztetan nola formatzen duten jakiteko. Era beran, soziologo batzuek (Paul Willis, Mike O'Donnell y Mairtin Mac an Ghail, beste batzuen artean) mutil gazteak elkarrizketatu dituzte. Haien inbestigazioan atera daitezken ondorioek, garbi uzten dute presio izugarria jasaten dutela gazteek, beraien generoari inposatutako estereotipoak jarraitzeko, eta jasoko dituzten arazoak hauen aurka asaldatu ezker. Tradizionalki, ia gizarte guztietan, gizonen heziketa askoz ere garrantzitsuagotzat hartzen zen emakumezkoena baino. Mendebaldeko gizarteetan desberdintasun hauek gutxitzen joan diren arren, materia asko generoarekin lotuta doazela ikus daiteke, hau da, asignatura ezberdinetan gizon eta emakume kopuruaren artean alde handia dagoela. Gaur egun emakumeak literaturan edo historian nagusitzen dira gizonak matematiketan edo ingenerizetan nagusitzen diren bitartean. Ikastetxeetan goraipamen handiegia ematen zaie gizonenak izan diren esperientzia profesionalei, karrera militarrei adibidez. Era berean emakumeak nagusitu izan diren karrerei berriz, etxeko zerbitzuei besteak beste, mespretxu handia erakusten zaie, ala dominio



patriarkal soziala sustatuz. Beraz, hezkuntza da emakumeak lan prestigiotsuenetan infraerrepresentatuak egotearen kausa nagusia.

### 3.3.3. Hezkuntzaren metodologia

Hezkuntzaren metodologiak eragin zuzena du gizartean eta bertan bizi diren pertsonengan. Metodologia modu zehatz batekoa da interes batzuen arabera sortuta dagoelako. Horregatik metodologiak ikasleak modu batekoak izatera bideratzen dituela ikusi dezakegu.

“Ikasleok ikasten dugu azterketak gainditzeko eta nota hoberena ateratzeko; baina bi edo hiru asteetan ez dugu ezer gogoratzen . Hau hezkuntzaren arazoa da, ez gurea.” (Vaz, 2017)

Gaur egungo hezkuntza metodologiaren helburu nagusia ez da ikastea, memorizatzea baizik. Materia ikastera kondentatuta dago jendea ikasketetan aurrera egin nahi badute. Ikasketa horiek gainera beharrezkoak izaten dira etorkizunean lanpostu bat lortzeko eta lanpostu hori beharrezkoa izaten da bizirauteko. Honetaz gain ikasleek nahi dutena ikasi ahal izateko nota batzuk atera beharra dituzte eta nota horiek memorizatzeke gaitasunaren bidez baloratzen dira.

“Unibertsitatera sartzeko frogak jendea sailkatzeko baino ez dira baliagarriak. Nota baxuago ateratzen baduzu ez daukazu aukerarik nahi duzun karrera ikasteko”( Vaz, 2018)

Ikasleak nota hoberena ateratzen saiatzen dira beraien gustuko gauzak ikasi ahal izateko. Ikasleen gaitasuna neurtzeko azterketak proposatzen ditu gaur egungo hezkuntza sistemak, eta azterketa horiek ikasleei ,azterketa egunerako materia memorizatzerara behartzen diete. Honek eragina du ikasleengan materia hori memorizatzeke denbora pasatu behar izaten baitute eta denbora horretan beste ikasleengatik urruntzen baitira. Ondorioz honek bazterkeria egoerak sortzen ditu. Azterketa horietan nota baxua ateraz gero ikasi nahi duten hori ikasteko aukerarik gabe geratzen dira ikasleak. Soilik dirudunak joaten ahal dira unibertsitate pribatuetara eta horregatik ekonomikoki maila baxuko ikasleek ezin dute ekonomikoki maila altuko ikasleak bezala nota baxua atera arren nahi dituzten ikasketak burutu.

“Badago jendea arazo ekonomikoekin ezin dutenak ordenagailuak erosi edo Interneta kontratatu. Gazte hauek arazo larriak izango dituzte lan bat entregatzerakoan eta irakasleek bidalitako dokumentuetatik ikasterakoan. Hori dela eta, ikasle guztion egoera berdina izan beharko zen ikasterakoan tresna berberak erabiltzeko.”(Vaz, 2018)

Gaur egungo hezkuntza sistemaren metodologiak ikasleei tresna batzuk erostera behartzen die, ez die materiala dohainik ematen. Horregatik gaur egun hasieratik pertsona batzuk

ikasketak burutzeko abantailak dituzte besteekiko, hau da ,doakoa ez denez gazte guztiek ez dute ikasteko aukera berbera izaten.

“Etxerako lanak gehiegizkoak dira; sei ordu ematen ditugu institutuan, eta hori gutxi izango balitz, beste hainbat ordu ematen ditugu norberaren etxean ikasten edota klasean bidalitako lanak egiten. Ikasketei hainbeste denbora ematen badiegu, zenbat denbora geratzen zaigu familiarekin egoteko, ondo pasatzeko eta gure bizitzan gauzarik garrantzitsuena egiteko, hau da, gozatzeko?” (Eizaguirre, 2017)

Hezkuntza sistemaren irakaskuntzarako bertze metodo bat etxeko lanen garrantzia da. Gaur egun garrantzia handia ematen diote etxeko lanei eta ondorioz ikasleak eskolan lan egiteaz gain etxean ere lan egitera behartuta daude.

“Aprobatzea da gaur egungo hezkuntzaren oinarria, ez jakintza. Eta aprobatzeko bide motzena ez da jakitea, memorizatzea eta hurrengo egunean ahaztea baizik. Buruan karpeta tenporalak sortzea, unean balioko dutenak, baina behin aprobatauta zakarrontzira joango direnak” (Aranzaba, 2010).

Gaur egungo hezkuntzaren benetako nahia ez da pertsonak beraien jakinduriaz baliatzea, memoria makinak egitea baizik. Metodologia honek ikasleak makina moduko batzuk bihurtzen ditu etorkizunean sistemaren buruek ezarritako lege batzuen menpe dauden lanpostu batzuetan lan egitera behartuak izateko. Iritzi kritikoa hobetu beharrean materia memoriatzaileak bihurtu nahi dituzte ikasleak. Laburbilduz hezkuntza sistema honek ikasleak nota bat bihurtzen ditu, zenbaki bat, etorkizunean nota horien arabera bizitza bat edo bertzea izango dutelako, eta honetaz gain, nota horretaz gain egoera ekonomikoak ere eragina du. Metodologia honen bitartez dirudunak abantailak dituztelako .

Aipatutako guztia kontuan izanda, Hezkuntza kontrol soziala bermatzeko tresnatzat erabiltzen den mekanismoa da. Nahiz eta teorian pertsonen garapenari mesede egin behar dion instituzioa izan, praktikan, esku hartze politiko masibo bat antzeman dezakegu. Hau agerian gelditzen da erabiltzen den metodologiagatik. Hasteko, klaseak oso hierarkizatuta egoten dira, hau da, umeei txikitatik esaneko izatea behartzen zaie, hala etorkizunean berdina egitera bideratzeko. Gainera, hezkuntza sistema modernoak proposatzen duen teknikak gehiegizko memorizatzea ekartzen du. Honek, umeei burua baliogabeko ideiez betetzea eragiten du, honekin beraien pentsatzeko ahalmena murrizteko. Hau guztiaren ondorioa, pertsonen arteko banaketa da. Alde batetik, klase ezberdintasunak erreproduzitu egiten dira, klase bakoitzeko subjektuei, bide beretik jarraitzea bideratzen zaielako. Beste aldetik, genero zapalkuntza sustatzea eta minoria etnikoen zapalkuntza ere bultzatzen ditu hezkuntza sistema honek, hala gizarte ordena sustatu eta klase egitura mantentzeko.

### **3.4. DESBIDERAZIOA:**

### 3.4.1. Drogen papera eta estatuaren zerikusia

Drogak bi multzo handitan banatzen dira; legalak, non tabakoa eta alkohola sartzen diren eta ilegalak kanabisa, heroina, kokaina etab. Droga legalak deritzogunak ohikoak eta onartuak diren arren, hauek eragindako heriotza kopuruak izugarrikoak dira, ilegalek baino hogeita hamar aldiz handiagoa. OMSko (Organización Mundial de la Salud) “*Neurociencia del uso y abuso de las sustancias psicoactivas*” informearen arabera, alkoholak eta tabakoak heriotzen %12a okupatzen dute (tabakoak %8,8a eta alkoholak aldiz, %3,2a) sustantzia ilegalek aldiz (anfetaminak, kokainak, opioak, extasiak eta kanabisak), %0,4a besterik ez. 205 milioi pertsona inguruk kontsumitzen dituzte droga ilegalak, baina hauek sortzen dituzten arazo eta heriotzak, tabakoak eta alkoholak sortzen dutena baino askozaz ere baxuagoa da. The Lanceten arabera, Espainian, esaterako, gizonezkoen %10a alkoholaren eragin zuzenagatik hiltzen da eta honi modu ez zuzenean alkoholagatik hiltzen diren milaka pertsonak gehitu behar zaizkio. Macionis y plumerek 528. orrian dionez, gazteetan kokaina kontsumorik handiena Espainian dago Erresuma Batuekin batera eta ondorioz.

Historikoki eta mundu osoan zehar, estatuak drogaren kontrabandoan zerikusia izan du, hasiera batean, herri indigenak okupatzeko eta hauek esplotatu ahal izateko alkohola erabiltzen zuten europar konkistatzaileek. Espainiako Bernardo de Gálvez erregeordeak, 1786an esan zuen indioak domestikatzeko alkohola oso eraginkorra zenez, berdina egiten hasi beharko zirela iparraldeko apatxeekin.

Estatu batuetan “Panteras Negras” alienatzeko, kontrolpean mantentzeko eta erreboltak saihesteko prezio baxuan heroina saltzen hasi zen FBIa trafikantez mozorroturik eta honelako zerbitu eman zen 70 eta 80. hamarkadan Espainian eta Euskal Herrian.

Garai hauetan, heroinaren plaga handiena, auzo behartsuenetan eman zen arren, Espainia osoan zehar zabaldu zen. "El consumo de heroína en el Estado español adquirió una dimensión epidémica" (Arriola, 2016, p. 183). "Entre 31.000 y 41.000 muertes, según las fuentes, oficialmente relacionadas con la jeringuilla hasta 1997" (Arriola, 2016, p. 202)

Askoren ustez, probaezina da estatuaren esku hartzea narkotrafikoan baina nola eta non topa ditzakegu honen inguruko aipu eta testigantzak dena ezkututzen badigute "informe Navajas" ekin egin zuten antzera? Informe Navajasek kontatzen zuen nola Barajaseko aireportuan Guardia Zibileko zuzendari izan zenaren biloba, 2 heroina kilorekin topatu zuten eta nola kargurik gabe libre utzi zuten. Baina hau izebergaren punta besterik ez da, honekin batera beste kasu asko aztertu dira narkotrafikoaren eta estatuaren parte hartzearekin lotuta. Esaterako, 2016ko abenduan Info7 Irratian, Justo Arriolak azaldu zuen, nola José Antonio Ardanzak, Arrasateko polizia municipalak, isildua izan zen ikerketa batean aipatu zuen Debaldeko eskualdean sartzen ari zen heroinaren jarraipenak zuzenean eraman zituela guardia zibilaren Bilboko La Salve kuartelera eta Donostiako Intxaurren kuartelera.

Bestalde, Nacho Carreterok, Galiziako narkotrafikoa eta politikariek izan zuten papera azaltzen du Fariña liburuan (Libros del K.O, 2015). Bertan, kontatzen digu nola Europara sartzen zen kokainaren %90a Galiziatik sartzen zen, non estatuko poliziek eta partidu politikoek etekinak lortzen zituzten honen kostara. Hemen adibidetzat ditugu, alde batetik, Galiziako Xuntako Feijóo gobernu buruaren eta Dorado narkotrafikantearen argazkia eta bestetik, Bea Gondar O Groveko alkate ohiaren kasuaren garaian, narkotrafikoa, justizia eta boterea oso nahastuak zeuden eta hori argi ikus genezake Aliantza Popularreko kide eta Cámara de Comercio de Vigilanciaiko presidentea zen, Pablo Vioquek, amaitu baitzuen bi kokaina tonelada lehorreratzeko eta Javier Zaragoza, Audientzia Nazionaleko “jefe antidroga” hiltzeko agindua emanez. Guardia Zibilez, politikoz eta trafikantez osaturiko narkotrafiko sare erraldoi honek hildakoz bete zuen Galizia.

Euskal Herrian zentratuz gero, Guardia Zibilak 60 kilo heroina besterik ez zituen konfiskatu bi hamarkada osotan zehar eta kontuan izanik 10 mila eta 11 mila heroinomano zeudela garai hartan 60 kiloek bi hiru asterako besterik ez zuten emango, beraz hau beste ebidentzietako bat dugu esateko polizia narkotrafiko sarearen parte zela.

Baina interes politikoez gain, interes ekonomikoak ere badira. “La producción capitalista de mercancías es, pues, la primera forma de economía en la historia de la humanidad, en la cual la desocupación y la indigencia de una capa grande y creciente de la población, y la directa pobreza sin esperanza de otra capa igualmente creciente, es no sólo una consecuencia sino también una necesidad, una conedición de vida de esta economía.” (Luxenburg, 1912:144.or.). Ahaztu egiten zaigu petroleoa, pertsonen eta armen trafikoaren ostean, narkotrafikoa dela ekonomia neoliberal globalizatuaren diru iturri nagusietako bat. Horregatik, ez da harritzekoa, ONUko zuzendariak, (ONU DC)ri, Antonio María Costari, 2008an hau esatea: "miles de millones de narcodólares impidieron el hundimiento del sistema en el peor momento de la crisis financiera global" (Arriola, 2016, 50.or.).

Informazio guzti hau batu eta gero ziurtasun osoz esan dezakegu Espainiako estatuak Euskal Herrian heroinaren kontsumoa bultzatu zuela interes politiko batekin, kasu honetan, errebolta soziala eta Euskal Herriko armada kontrolpean mantentzeko. Baina, lehen esan dudan moduan, interes ekonomikoak baziren. “No es necesario que haya lucha armada para que el poder utilice las drogas como instrumento represivo, es suficiente que haya un movimiento de oposición, de rebeldía, de desobediencia”(Arriola, 2016, p. 345.).

Beraz, lan honetako atal honetatik atera dezakegu, botere politikoa eta estatua, era anitzetan, inplikaturik egon direla eta egoten jarraitzen dutela narkotrafikoan, bereziki 70 eta 80.hamarkadetan. Gainera, nahiz eta estatuak itsura ona emateko eta propaganda ona zabaltzeko asmotan drogaren aurkako zenbait ekimen egin, agerian uzten du nahiago duela gaur egun hain agerian den drogodependentziarekin amaitzea baino poltsikoa, zikindutako diruz betetzea, marginatuak sortuz.

Amaitzeko, aipatzekoa dugu drogaren, marginazioaren eta estatuan lotura. Estatuak droga erabiltzen duelako kontrol sozial bat lortzeko eta errebolitariak kontrolpean izateko, honela marginatu eta desbideratuak sortuz eta hauek bananduz, gizarteko lakratzat hartuz. Beraz, “Ya no podemos limitarnos a estudiar la delincuencia sin tener en cuenta que sus causas y sus consecuencias frecuentemente traspasan fronteras”. Macionis y plumer, 529.or.).

### 3.4.2. Gazteen tendentzia errebelde edo iraultzailea

Gaur egungo gizartearen norabidea ezin dugu ulertu azken garaietako errealitaterik gabe. Izan ere, gaur egun bizi dugun gizarte-sistema, aurreko garaietako garapen modura planteatu behar dugu.

Honen ondorioz, mundu modernorako trantsizioak apurketa dramatiko bat suposatu zuen iraganarekin eta azken garaietan eman diren garapenak ez dira aurrerapen ilustratu baten isla, baizik eta botere eta jagoletza formen garapena. Boterea leku guztietan dago eta diskurtsoen bitartez ezartzen da (Foucault, 1926-84). Delituak eta honen gainean ezarrita dagoen legedia adibide bezala jartzen du Foucaultek, izan ere, botereak gizartearen diskurtsoa determinatzen du. Hau da, botereak bere interesetara dauden teoriak zabaltzen dituzte instituzio desberdinen bitartez (unibertsitateak), gizabanakoen kontzientziak eta ideologiak kontrolpean edukitzeko.

Gehiago zehazteko aipatu beharra dago gazteengan daukan eragina, izan ere gazteek “frustración de estatus” sufritzen dute, hau prozesu bat da non estatus sozial bat lortzeko bidean daude. (Cohen 1971; orig. 1955). Gazteen delinkuentziaren gaineko bere ikerketan Cohenek ikusi zuen inguru desjabetu batetik zetozen gazteak, bere ikasketa prozesuan ere joera hau erreproduzitzen zutela. Honekin zailtasun nabarmenak zehaztu ondoren ikasketa prozesu honetan jasotako baloreak kontrakultura bat sortzeko erabiltzen zituzten, non bandalismoan, porrotean etab oinarritzen ziren beraien meta printzipalak.

Delituan oinarritutako jarrera hauek, klase sozial baxuenetako gazteek praktikan jartzen zituzten, aukera gutxiago zituztelako mekanismo konbentzionalen bitartez garaipena edo estatus “on” bat lortzea (Cohen 1971). Gainera, nahiz eta norbait izateko aspirazioa lortu ez du gizarte osoaren onarpena lortuko kontrakultura honen praktikarekin.

Gazte hauengan ezaugarri desberdinak ikusi daitezke: delitua egin edo sortzeko maiztasuna, gogortasuna, erretasuna, emozioa, patuarekiko kezka eta autonomia edo askatasunaren nahia. (Miller 1970). Hala ere, hor ez zen gelditzen determinazio hori, desbiazioa ere kontuan hartu behar da aukeren estruktura erlatiboaren gain egongo balitz bezala, zeinek gazteen bizitzetan guztiz eragingo duen. Honen adibide garbia Al Caponeren bizitza da, aukera ilegalek delinkuenteen azpikulturak eragiten ditu, non berdinen taldeen onarpena lortzeaz gain, lanaren gaineko ezagutzak ikasi zituen, beharrezkoa mekanismo ez konbentzionaletan aurrera joateko. Hala nola, delinkuentzia taldeak beraien norabideak zehazten dituzte aukeren eta baliabideen arabera (Sheley, 1995)

Gainera, ezin dugu ahaztu jarrera deliktibo hau ez dutela klase desjabetuek bakarrik bere gain hartzen. Klase sozial hauetako gizabanakoek ez dituzte iruzur ekonomikoak egiten etekin gehiago lortzeko, indar ekonomiko honen falta dutelako. Hala ere oso argi ikusten da noren gain jausten den “justizia”, zeinek egin behar duen edozer bizirauteko eta zeinek ez duen errepresioa besterik jasaten osotasun honen aurka egiten duenean.

Honez gain zaila da gazteen eta bazterkeriaren erlazioa ulertzea, izan ere, gazte izatearen garai hau dependentziarekin eta gizartearekiko estigma edo onarpen sozial batzuekin. Gazte subjektu hau ezin dugu ulertu hau honela definitzen dituen hiru inguru gabe: ikasketa prozesua, lana eta familia. Izan ere, gaztetasun honek ikasten egotea eta gurasoengandik bizitzea dakar. Hala ere, gazte guztien artean subjektibitate desberdin asko existitzen dira beraien errealitate materialaren arabera. Horretarako, gazteen bizitza zikloak definitzea beharrezkoa da, dependentzia hau sortuko duten forma “exacerbatuak” eta luzeak identifikatu gizarte bazterkeriaren seinale baitira. (O.Galland)

Honekin loturik eta testuinguru oso hau ondo ulertu ondoren ikusi behar dugu gazteen presentzia edo behar iraultzailea oso garrantzitsua dela. Izan ere, gaztetasuneko subjektibotasuna kontuan hartuta, gazteei hasieratik kondenatzen zaie etorkizun batera gaur egun beraien gurasoek bizi duten errealitatea bizitzera, honen ondorioz txikitatik egoera kaxkar bat bizi duen gazte batek hau aldatzeko behar bat ikusten du, jabe delako etorkizun batean bere egoera berdintsua izango dela. Honen ondorioz, jarrera errebelde hori pizteko nahia agertzen da eta gizartearen norakoak aldatzeko beharra ere bai. Hau dela eta, herriko zenbait kolektibo desberdinetan parte hartzen hasten da, lehenik eta behin bere espazio ikusten duen herri honi buelta emateko intentzioarekin.

Gai hau gehiago zehaztearren eta esan beharra dago, gazte orok ( lehen esan bezala, bere subjektibitatea kontuan hartuta) errepresio autoritarioaren aurkako tendentzia baten baitan jarduten duela, lehenik eta behin bere gurasoen aurka, autoritate estatalaren zeharkako organoak baitira. Errebeldia puntu hauek gazteen tendentzia ezkertiarra asko baldintzatzen dute. Hau da, beraien autoritate paternala zalantzan jartzen dute eta honekin batera gizarteak sortzen dion autoritate ororen aurka manifestatzen da honela askatasun eta autodeterminazio sozial hau aldarrikatzen. (Reich, 1974)

Hau guztia kontuan hartuta esan dezakegu, gizarte honetan sistemaren aurka borrokatuko duen klasearen punta zuzena(gehienbat) gazteek eramango dutela; hauek baitute sistemaren akomodazioa sufritu, ez eta beste gizarte baten bizitzeko nahi eta aspirazio handiena.

### 3.4.3.Marjinazioa desbiderazioaren ondorioa

Gaur egungo gizarte-desberdintasunetan sakontzen duten gizarte-zientzialariek, gizarte-bazterkeriaren terminoa garatzen dute, gizarte aurreratuen errealitate sozial hori hobekien definitzen eta biltzen duena baita. Tezanosek (1999) hiru kontzeptu-multzo zerrendatzen ditu: lehenengoak gizarte bizipenak biltzen ditu, gizarte maila estandarretik,

kultura edo portaeratik bereiztea inplikatzeko duena, ekintza borondatezkoa izan ala ez. Kontzeptu honetan sartzen da gizarte-desbideratzea eta bazterkeria. Bigarren blokean, ekonomia-eremu batean dauden kontzeptuak, baliabide eza edo pobrezia, eta faktore material kuantifikagarriak aipatzen dira. Eta azkenik, alienazioaren problematikari lotutako kontzeptuak biltzen ditu, gizakiak arrotzak eta gizartetik at sentiarazten dituztenak. Gizarte-bazterkeriaren kontzeptuak hiru kontzeptu-multzoen elementuak biltzen ditu sintesi berri batean, kultura-dimentsio ekonomikoaren bidez, eta aldi berean, lanaren problematikari lotutako dimentsioa gizarteratzeko funtsezko mekanismoa izanda.

Gizarte bazterkeria terminoa, gizarte aurreratuetan gizarte osoa definitzen duten bizi-aukeretatik kanpo dauden pertsona guztiei erreferentzia egiteko erabiltzen da (Tezanos, 1999). Adierazpen horrek gizartearen irudi dual bat dakar berekin, non sektore integratu bat eta beste bat baztertuta dagoen (García Roca, 1999). Hori dela eta, bazterketaren azterketan norbanako eta taldeak sektore batean edo bestean kokatzea erabakitzen duten faktoreetara jo behar da.

### Kontzeptua

Soziologiaren arloa izan zen, hain zuzen ere, marjinazioaren lehen erabilerak egin zituenena Park (1928, 1937) edo Stonequist (1937) bezalako autoreekin.

Gizarte-bazterkeriaren kontzeptua Frantzian agertu zen hirurogeiko hamarkadan, hasiera batean pobreak izendatzeko. Duela hiru hamarkada, pertsona egokitu gabea edo asoziala, bere elbarritasun fisiko edo psikikoaren, jarrera psikologikoaren edo prestakuntza ezaren arabera, bere beharrak asetzeko gai ez dena, zainketa konstanteak eskatzen dituen, beste batzuentzat arriskua adierazten duena, edo kolektibitate bereizita dagoena identifikatzen zen marjinal (Lenoir, 1974). Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, gizarte-bazterkeria kontzeptua zabaldu egiten da, lotura eta gizarteratzea narriatzen duten pertsonak barne hartuz, hazkunde ekonomikoko ereduak direla-eta (Roman, 1993; Yepes de Castillo, 1994)

Laurogeiko hamarkadan, egoera prekarioan dauden herritarren kopuruak gora egiten duten fenomenoak garatzen dira, "Pobrezia berria" izenarekin ezagutzen duguna. Fenomeno horiek honako hauek dira: iraupen luzeko eta gazteen langabezia, auzo periferikoetako hiri-biztanleriaren kontzentrazioa eta etxerik eta etxebizitza finkorik gabeko pertsonen kopurua, baita guraso bakarreko familia egituren hazkundera ere.

Kontzeptu indibidualista atzean utzi (minusbalioak, portaerak, prestakuntzarik eza) eta kontzeptu psikosozialari begiratzen zaio, eta horren arrazoi nagusia enplegu prekarioa edo langabezia baztertzea da, baita etxebizitza falta edo hiriaren periferian bizitzea ere.

Grijalba (1971) eta Bautistaren (1985) hitzetan marjinazioaren bidez, pertsona eta talde minoritarioak gizarte-bizitzatik at usten dira, gizarte talde nagusi/zapaltzailetik ezarritako ezaugarri eta arautegiak betetzen ez dituztenak. Marjinazioa normaltasunetik kanpo egoteari dagokio eta gizartearen eginkizun baztertzaila nabarmentzen du (Correa y Martin, 1996)

Gaur egun, analista ekonomiko eta soziologikoek gizarte duala edo hiru herenekoa deskribatzen dute: kolektibo bat bizitza duin baten parte dagoen bitartean, beste sektore txikiagoakoa biziraupeneko sistema batean dago, duintasunez bizitzeko aukeratik kanpo (Alonso Torrén, 1994). Gizarte dualak bi polo dituen etenaldi bat sortzen du, ongizate gorena eta ondoeza.

### Marjinazio sozialaren ezaugarriak edo irizpideak

Zenbait autoreek marjinazio soziala gizarte-ongizate ezarekin lotzen dute. Alonso Torrén (1994) ustez, gizarte-ongizatea ez izateak, hainbat elementuren urritasunaren ondorioa da, azkenik marjinaziora bultzatuz. Esate baterako, maila ekonomiko, kultural eta hezigarriak, lan-egoera, egoera okupazionala, etxebizitza duina, egoera fisiko nahiz psikologikoa, integrazioa familia eremuan eta integrazio soziala. Badira beste irizpide batzuk ere marjinazioa sustatzen dutenak: ezaugarri fisiko edo psikiatrikoak, adimen-urritasuna, kultura aniztasuna, gutxiengo kolektibo baten parte izatea, lanbide-heziketarik ez izatea, etab.

García Rocaren (1995) hitzetan, marjinazioa haustura ekonomiko eta sozial baten ondorioa da. Autore honek bazterketa hiru dimentsioen bidez definitzen du:

-Dimentsio ekonomikoa: herritar anitz sistematik kanporatzea, beste batzuen ongizatea bermatzeko helburuarekin.

-Dimentsio soziala: eragindako kaltearen intentsitateak testuinguru sozialaren ahultasunaren araberako izango da.

-Dimentsio pertsonala: komunikazioaren etenduran, konfiantza ezaren eta autoestima baxuaren, etab. isla bat da.

Konklusio gisa, zenbait dira marjinazioaren ezaugarri nagusiak:

1. Baliabide ekonomikoen falta.
2. Enplegu eza edo enplegu ezegonkorrak.
3. Etxebizitza baldintza prekarioetan edo etxebizitza duinen alderaketa.
4. Gizartean onartzen ez diren jokabideak: ezkutuko ekonomia, prostituzioa, delinkuentzia.
5. Gizartean onarturik ez dauden ezaugarri pertsonalak: atzerritarrak, homosexualak.
6. Prestakuntza txikia hezkuntzan.
7. Gaixotasunak edo osasun eza: HIESa, akats fisikoak edo, psikoak.



## Marjinazio prozesua eta eremuak

Robert Castelek (1992) hiru eremu bereizten ditu gizartean: integrazio-gune bat, lan egonkorra eta gizarte-harreman sendoak dituzten pertsonak, zaurgarritasun-eremu bat, pertsona ahulak, lan prekarioa eta harreman hauskorrek dituztenak, eta azkenik, bazterkeria gunea dago, lan ezaren eta isolamendu sozialaz osatuta dagoena.

Catrek (1995) marjinazioaren prozesua azaltzen du, pobreziaren hiru esparru azalduz:

- Prekarietatea, desberdintasuna inplikatzeko duena, gehienbat soldatarengatik. Baliabide ekonomiko urriengatik bereizten da. Egoera honetan dauden kideak txertatuak izaten dira laneko eta gizarteko bizitza egituretan. Sistema funtzionaletan parte hartzen dute, baina baldintza ezberdinekin.
- Horren ostean, soldata ezegonkorra duten pertsonen eragozten zaizkien harreman sozial eta politiko ezberdinak.
- Prozesuaren amaieran erabateko bazterkeria dator. Etapa honetan, pobreziaren belaunaldiarteko iraunkortasuna da nagusi. Ondorioz, posizio honetako pertsonak indarkeriaren, lapurreten, jarduera ezaren eta abarren susmagarri bihurtzen dira.

Laparra, Gaviria eta Aguilarrek (1996) prekarietatearen, gizarte-bazterketaren eta marjinazioa desberdintzen dituzten.

- Prekarietatean dauden gizabanakoak soldata baxuak, aldi baterako enpleguak eta lan-baldintza txarrak dituzte. Autoreek ezegonkortasun hau pobrezia erlatiboarekin lotzen dute.
- Gizarte-bazterketa: soldata irabaztearen eskubiderik ez izateari deritza. Hots, ezkutuko ekonomian oinarritzen da (etxeko lana). Etxerik gabeko familiei edo pobrezia aurre egiteko zailtasunak dituzten familiei egiten die erreferentziak egileek. Alegia, emakume gazte eta familiarekin edo eskola-porrota jasan dutenen kasuak dira ohikoak.
- Marjinazio soziala: erabateko pobrezian bizi direnak jasaten dute egoera hau. Gainera, irainduak, kriminalizatuak eta bananduak izaten dira gizarteko gainontzeko pertsonen partetik. Esate baterako, ijitoak, magrebtar etorkinak, Hiesa dutenak, drogoenpekotasuna duten pertsonak, etab.

Aurrez aipatu bezala, gizarte guztietan aurki dezakegu kolektibo zapaltzaile eta kolektibo zapalduak. Gizarte horretako kolektibo zapaltzaile nahiz zapalduak inposaturiko estruktura jarraitu behar izaten dute, eta noski, estruktura horretatik desbideratzen zaren momentuan, borondatez izan ala ez, etiketatua izango zara, azkenik bazterkeria egoera batera iritsi arte. Adibidez, homosexual batek bere sexualitatea azaleratzen duen momentuan etiketatua izango da, eta kolektibo batzuen partetik mespretxatua, azkenik bazterkeria egoera batean aurkituz. Kasu hori ez zen borondatezkoa izango, beraz, gizarteko kideak izango ziren norbanako hori

epaituko zutenak. Desbiderazioa larriagoa denean, ordea, erantzuna formalagoa izaten da justizia medio izanda, eta normalean legea jarraituz epaitua izango da norbanakoa. Gizartearentzat arriskutsua dela erabakitzen bada, gizartetik at utziko da denbora jakin batean, hau da, espetxeratua izango da. Baina egoera ez formaletan, era batean edo bestean, berdina egiten da, zapal dutako kolektiboak gizartetik baztertzen dira, hau da, hirietako auzo periferikoetara bidaltzen dira. Etorकिनak edo soldata baxuko pertsonak ditugu adibidekotzat, hirietako erdialdeko pisuak garestiegiak izaten direnez periferietako etxeetan bizi ohi dira, eta beraz gizarteak honelako pertsonak urrun izatea ziurtatzen dute.

Laburbilduz, desbiderazioa, inposaturiko estrukturaren aurkako jarrera da. Kontrol sozial baten menpe bizi gara, estatuaren, hezkuntzaren, erlijioaren, komunikabideen eta gizarteko kideen aldetik ere. Kontrol hori sustatzeko hainbat metodo erabiltzen dira, eta horietako bat hasieran aipatu bezala drogak izango lirateke, non estatuak eskuhartze handia izan duen urte guzti hauetan zehar, droga legal nahiz ilegalak bultzatuz, beraien interes politiko eta ekonomikoengatik. Bestalde, estruktura sozial horretatik desbideratzen den norbanako bakoitza, borondatez izan ala ez, bazterkeria egoera baten jasanpean egongo da. Gizarteko kolektibo zapaltzaileari interesatzen ez zaizkion kolektibo zapalduak gizartetik at usten dituzte, adibide modura, desbiderazioa gizartearentzat arriskutsua bada (legearen haustura suposatuta bada), segurazki espetxe zigorra ezarriko litzaioke pertsona horri. Bestalde, gizartearen barne nahi ez dituzten kolektibo txikiak ere marjinazioa jasaten dute, auzo periferikoetan kokatuz.

Amaitzeko, gazteen kasuan, estruktura jakin batzuk inposatzen dizkiguten arren, jarrera iraultzaile bat adierazten dugu, horren aurka borrokatuz.

#### **4. METODOLOGIA**

Egitura sozialetatik (erlijiotik eta hezkuntzatik) inposatzen den kontrol soziala aztertu nahi izan dugu eta honekin batera, kontrol horrek sortzen dituen marjinatuak eta kontrol sozial horren aurkako joera eta portaera hartzen duten gizabanakoen inguruan ikerketa bat egin.

Honetarako, hainbat hipotesi batzeaz gain, lan honekin aztertu eta lortu nahi ditugun helburuak zehaztu ditugu. Iturri desberdinetatik informazioa lortzen saiatu gara, gaiaren inguruko ikuspuntu ezberdinak lortu ahal izateko baina datu objektiboen ziurtasuna alde batera utzi gabe.

Gizartearen antolaketek gizartean inposatu duten kontrola lantzea garrantzitsua iruditu zaigu, horrela erlijioa eta hezkuntzaren zilegitasuna zalantzan jarriz eta estatuak sortzen dituen marginatuen defentsa eginez, beti ere estatuko korrupzio eta kontraesanak azaleratuz.

Kontrol soziala ulertzeko eta zabaltzeko modu desberdinak landu nahi izan ditugu, baita lehenengo gaiari eutsiz, desbideratuak hau nola bizi duten aztertzea ere. Horretarako, lehenik, sektore ezberdinek kontrola zabaltzeko duten moduari erreparatu diogu, eta herritarrok hauek, txintik ere esan gabe, jarraitzeko moduaren inguruan hausnartu dugu.

Kontrol maxibo honek, marginatuak sortzen ditu eta sarri egin izan dugu sailkapen hori, baina ez dugu kontuan hartzen sailkapen horren zergatia, zein ezaugarri hartzen ditugun kontuan edo zeinek sailkatzen dituen horrela gizabanakoak, izan ere, sailkapen hori zeinen ikuspegitik egiten den ikusteak informazio ugari ematen digu.

Ondoren, desbiazioa zer den eta zein ezaugarriekin lotzen dugun aztertzea pentsatu dugu. Ikuspuntu desberdinak landu eta informazioa bildu nahi izan dugu. Honetarako, estatuak ezkutatu nahi dituen iturrietara jo dugu, beste batzuek artean, La red Galindo, Fariña eta A los pies del caballo.

Azkenik, Gizarte Langintzak gai honetan duen papera lantzea pentsatu dugu eta horretarako egungo gizarte langintzaren papera zein den aztertu eta honen kontraesanak azalerraten sailtu gara. Amaitzeko, hasierako hipotesiak, lortutako informazioa baliatuz baieztatu edo ezeztatu ditugu, horrela ondorio jakin batzuk lortuz.

## **5.ANALISIA: GIZARTE LANGINTZAREKIKO LOTURAK**

Gizarte Langintzak kontrol sozialarekin harreman zuzena duela ikus dezakegu J.M. Moran eta M. Floresen tesian (2018), historikoki limosnatik, laguntza arrazionalizatura emandako pausua nola eman zen eta aldaketa horren zergatia azaltzen duenean.

XVIII.mendera arte, eliza arduratzen zen karitateaz eta hau limosna bitartez eramaten zen aurrera. Behartsuei laguntza emateko arazoia jainkoarenganako maitasuna zen nagusiki. XVIII. mendean ordea, aldaketa garrantzitsu bat eman zen gizartean eta honek eragin zuzena izan zuen laguntzan. Laguntza modu arrazionalizatuan ematen hasi zen eta elizaren esku hartzea gutxiagotzen hasi zen, elkarte pribatuen eta beranduago, instituzioen parte hartzea agertuz. Ezarritako politiken helburua ordea, ez zen behartsuei laguntzea, lan egin gabe bizi zirenen alperkeria murristera baino. Horregatik agertzen ziren limosnaren aurka, honi botazten baitzioten hainbeste eskale egotearen errua.

Beraz, momentu honetatik aurrera eskaleak bere “gixajo” izaera galtzen du, estatuarentzat karga batean eta gizartearentzat arrisku batean bilakatuz. XVIII.mendearen erdialdean, lan egin gabe bizi direnen ezabaketan hasi ziren eta pisuzko arazoiengatik lan egin ezin zutenei soilik lagunduko zioten. Gainera, 1749an, lan gabe bizitzea debekatu zuten eta honen bitartez jendea lan produktibora bultzatzea lortu nahi zen.

Laburbilduz, esan dezakegu garai honetatik aurrera instituzioetatik eskeintzen zen laguntza hori gizartearen kontrola bermatzeko tresna bat izan daitekeela, beti ere lanaren produkzioa handitzea helburu duelarik. Ondorioz, gizarte laguntza eta langintzaren eta kontrol sozialaren arteko lotura estu bat dagoela ikus dezakegu.

Gaur egunera gehiago urbilduz gero, gizarte langintzaren funtzionamendua, estruktura... aztertzea garrantzitsua lan honek. Hasteko eta behin, Molledak (2012) dioen bezala, Estatuak orokorrean gizabanakoak arauak betetzera behartzen ditu errepresioaren eta zigorren bitartez. Zigor hauek, poliziak, juezak... ezartzen dituzte; botere betearazleak.

Beste alde batetik, estatuaren aparatu ideologikoen erlijioaren, familiaren, hezkuntzaren, komunikabideen, partidu politikoaren... erabilpena egiten dute beraien propaganda zabaltzeko eta jarrera eta ideia komunak eta normalizatuak birsortzeko. Beraz, bi egitura hauen beharrezko dago sistema mantendu ahal izateko.

Langileak eta kontsumitzaileak egotea ere ezinbestekoa da sistemarentzat, horregatik ez da komeni jendea ezin egon baten aurrean aldatzea eta antolatzea. Horregatik, estatuaren objektibo bilakatzen dira marjinatuak, gizarte langintza bezalako tresna ideologikoen bitartez.

Molledaren (2012) ustez, Gizarte Langintzaren lana bi ikus puntutatik azter daiteke: Alde batetik, bere helburua mundu hobe bat lortzea duen gizarte langintza eta hori lortzeko, beharrezko dituzten pertsonen laguntza. Eta beste alde batetik, pobreak eta beharrezko desorden soziala sortzen dutela uste duen Gizarte Langintza eta bere helburua marjinazioa, miseria... ezabatzea duena, sistemaren stabilitatea mantentzeko.

Instituzioetatik, Gizarte Langintzak bi modutara egin dezake lan: Alde batetik, indibidualizazioa mantenduz; hau da, pertsona bakoitzaren beharrezko eta sintomak kontutan hartzea. Beste alde batetik, komunitatearen eskaeretan zentratuz. Ondorioz, pertsonak moldatu behar diren objektu gisa ikusiko dira, sistemarentzat eta gizartearentzat onak diren jarreretan mantenduz.

Celia Bermejo Sanzen tesian, ideia oso esanguratsu eta adierazle bat aipatzen da: “La ideología determina unas prácticas sociales concretas y tiende a imponerlas. No es posible una sociedad sin ideología” (2016, 16.orr.).

Faleirosek (2011), Gizarte Langintza explotazio eta opresio egoerak gainditzeko tresna ote den planteatzen du, kontutan izanda bera ere orden sozial horren produktu dela.

## **6. ONDORIOAK**

### **6.1 LABURPENA:**

Laburbilduz, katolizismoari dagokionez, esan daiteke, pertsonen inozentziaz baliatzen dela, jendea sinisdun egiteko, zerbaiten sinistu behar duen jendea dagoelako. Hau horrela izanik, aurretik aipatu bezala gizartea kontrolatzeko hainbat mekanismo erabiltzen ditu erlijioak besteak beste: buruzagitza eztabaida ezina eta legitimoa, kontestuaren kontrola, bide amankomun bateko norabidea jarraitu beharra; adibidez rol familiarrei dagokienez esan dezakegu historian zehar erlijioak gizonezkoei eman diela garrantzia eta beraz beraiek izan dutela familiarekiko botere guztia. Bestetik, kontrol emozional eta sexuala ditugu, eta hauek erreprimitu nahia dute, arriskutzat baitituzte. Baita, ideia ezberdinak dituenarekiko aurkako jarrerarekiko kontrola, berau areriotzat duelako, eta ez duelako halakorik onartzen, etsaitzat harturik. Honez gain, erlijioak hainbat ohitura eta tradizio sartu dizkigu gure egunerokotasunean eta esan beharra dago ospatzen ditugun jaiak arrazoi erlijiosoak dituztela medio, Gabonak besteak beste eta hau ere gizartea kontrolatzeko beste modu bat delarik.

Aipatutako guztia kontuan izanda, Hezkuntza kontrol soziala bermatzeko tresnatzat erabiltzen den mekanismoa da. Nahiz eta teorian pertsonen garapenari mesede egin behar dion instituzioa izan, praktikan, esku hartze politiko masibo bat antzeman dezakegu. Hau agerian gelditzen da erabiltzen den metodologiagatik. Hasteko, klaseak oso hierarkizatuta egoten dira, hau da, umeei txikitatik otzan izatea behartzen zaie, hala etorkizunean berdina egitera bideratzeko. Gainera, hezkuntza sistema modernoak proposatzen duen teknikak gehiegizko memorizatzea ekartzen du. Honek, umeei burua baliogabeko ideiez betetzea eragiten du, honekin beraien pentsatzeko ahalmena murrizteko. Hau guztiaren ondorioa, pertsonen arteko banaketa da. Alde batetik, klase ezberdintasunak erreproduzitu egiten dira, klase bakoitzeko subjektuei, bide beretik jarraituzera bideratzen zaielako. Beste aldetik, genero zapalkuntza sustatzea eta gutxiengo etnikoen zapalkuntza ere bultzatzen ditu hezkuntza sistema honek, hala gizarte ordena sustatu eta klase egitura mantentzeko.

Orokorrean, desbiderazioa, inposaturiko estrukturaren aurkako jarrera da. Kontrol sozial baten menpe bizi gara, estatuaren, hezkuntzaren, erlijioaren, komunikabideen eta gizarteko kideen aldetik ere. Kontrol hori sustatzeko hainbat metodo erabiltzen dira, eta horietako bat hasieran aipatu bezala drogak izango lirateke, non estatuak esku-hartze handia izan duen urte guzti hauetan zehar, droga legal nahiz ilegalak bultzatuz, beraien interes politiko eta ekonomikoengatik. Bestalde, estruktura sozial horretatik desbideratzen den norbanako bakoitza, borondatez izan ala ez, bazterkeria egoera baten jasanpean egongo da. Gizarteko kolektibo zapaltzaileari interesatzen ez zaizkion kolektibo zapalduak gizartetik at usten dituzte, adibide modura, desbiderazioa gizartearentzat arriskutsua bada (legearen haustura suposatu badu), ziur aski espetxe zigorra ezarriko litzaioke pertsona horri. Bestalde,

gizartearen barne nahi ez dituzten kolektibo txikiak ere marjinazioa jasaten dute, auzo periferikoetan kokatuz.

Amaitzeko, gazteen kasuan, egestura jakin batzuk inposatzen dizkiguten arren, jarrera iraultzaile bat adierazten dugu, horren aurka borrokatuz.

## 6.2. HIPOTESIEN BAIEZTAPEN EDO EZEZTAPENAK

### 1. Erljioa eta Gizarte langintza kontrol soziala bermatzeko tresnak izan daitezke?”

Aipatzekoa da Gizarte Langintza kontrola bermatzeko tresna bat dela, alde batetik, paradoxa bat delako gizarte langintza gizarteak sortzen duen marjinazioa gutxitu edo kendu nahi duelako baina sisteman parte izanik berak ere marjinazioa sortzen duelako. Gainera, Gizarte Langintza sistemaren eta estatuaren tresna izanda hauen ideiak jarraitzen dituela begi bistakoa da, besteak beste, umezurtz etorkinak integratzen saiatu beharrean zuzenean beraien egoera berean daudenekin baztertzeko dituzte, honela, hauen gizarteratzea oztopatuz eta beraien arazoak areagotuz. Baina honen atzean pisuzko arrazoiak ezkutatu dituzte, batetik, gaur egungo arrazakeria dela eta etorkinak ezabatzen edo behintzat ezkutuan mantentzen saiatzen dira honelako ekintzekin, gizarteko kideok haienganako beldurra dugulako eta helburutzat gu pozik mantentzea (itxuraz bada ere) dutelako nahiz eta horrek bazterkeria egoera bat suposatzen duen. (Epelde, 2016, 55-56.or.)

Bestalde, analisia atalean irakur dezakegun moduan, historikoki gizarte langintzaren sorrera aztertuz gero, antzeman dezakegu gizarte langintza ordena ezartzeko helburu batzuekin hasi zela lanean eta ez behar duenarenganako errukitasunagatik.

Erljioa dagokionez, nahiz eta pentsatu gaur egun indarra galdu duela eta gizartearen zati handi batek honi jarraitzeari utzi edo uko egiten diola, katolizismoan adibidez oso argi ikusten da tradizioan, kulturen eta ohituretan izandako eraginak gaur egun arte bizirik jarraitzen duela. Arlo teorikoan azaldu bezala, gure egutegiari erreparatu gero, jai egunetako %90ak arrazoi erlijiosoak jarraitzen ditu. Beste alde batetik, lan osoan zehar aipatzen ditugun kontrola bultzatzen duten egituren ( estatu, hezkuntza, komunikabideak...) barnean dugu katolizismoa. Estuari erreferentzia eginez, politikariek jainkoari erreferentzia egiten die besteak beste, Iñigo Urkulluk 2012an.

Hezkuntzan aldiz, eskola pribatuak behatuz gero, eskola katolikoak dira gehienak eta estatuak diru laguntzak ematen dizkie.

Horren adierazle da: “Escuelas Catolicas supone el 15% del total del sistema educativo y el 58 de la privada concertada, en lo que la convierte en la organizacion mas representativa de este sector”( Escuelas Católicas ). Baina hezkuntza publikoan ere, bere esparrua du katolizismoa eta ez bakarrik bere ikasgaia duelako baizik eta ematen den materia gehienetan honen arrastoak daudelako eta zer esanik ez historian. Katolizismoa komunikabideetan ez da atzean geratzen, batetik idazten duen orok nahiz eta nahi ez barneratuta duelako diskurtso

erlijiosoa eta bestetik, komunikabideen funtzionamenduaren atzean arrazoi ekonomikoak daudenez eta eliza katolikoak baliabide ekonomiko handiak dituen ezan genezake, bere ideiak zabaltzea errazago dela.

## 2. “Hezkuntza kontrol soziala bermatzeko tresna garrantzitsuenetako bat al da?”

Aurrerago aipatu dugun bezala hezkuntzak bai pribatu eta bai publikoak diskurtso politikoa bere baitan hartzen dute, nahiz eta nahiko era disimulatuan egin. Gaur egungo hezkuntzak ustezko pentsamendu askatasuna, autokritika eta bideak zabaltzen dizkigunaren diskurtsoa izan arren, gela egitura eta irakaslearen autoritateak hasita kontrol soziala bideratzeko tresna sendoenetako bat da hezkuntza.

Konstituzioko 27.artikuluan hezkuntzak pertsona bakoitzaren nortasunaren garapen osoa helburu izango du bizikidetasuneko printzipio demokratikoekin eta eskubideekin eta funtsezko askatasunekin errespetuan dagoela esan arren, hau betetzen ez dela argi dago. Beraz, ziurtasunez esan dezakegu hezkuntza itxurazko helburu zehatz batzuk baditu ere, errealitatean eta egunerokotasuneko praktikan guztiz ideologizatuta dagoela.

## 3. “Gizarteko arauen aurka egiten dutenak gizartearen aldetik bazterkeria jasaten al dute?”

Hipotesi hau nahiko argi izan genuen lana egiten hasi baino lehen baina hau egiaztatzea ezinezkoa egin zaigu lanaren bukaerara arte. Aurrerago aipatu dugun lez, Gizarte Langintza kontrola bermatzeko tresna bat da, eta arau horietatik kanpo daudenak laguntzen saiatzen dira, gehienetan kontuan izan gabe bestearen iritzia eta laguntza baten beharra duen ondo jakin gabe. Adibide bat jartzearen, erdi mailakoak herri indigenetara joan izan garenetan, beraien kontestua eta beharrak kontuan hartu gabe, etxeak, irakaskuntza ereduak etab. inposatu izan ditugu pentsatuz hori dela behar dutena, nahiz eta hala ez izan.

Beraz, bai, normatibitate hegemoniko hontatik kanpo geratzen den dena gaizkitzat hartzen du gizarteak, hauek baztertuz. Baina bazterkeria eman ostean, hauek laguntzeko Gizarte Langileak jartzen ditu berriro ere itxurakeria hutsaz.

### 6.3. PROPOSAMENA

Egindako azterketa honen ondorioz, gizarte langintza ordena soziala mantentzeko ezinbesteko tresna bat izan ez ezik, horretarako sortua izan dela esan genezake. Horrez gain, gizarte langintzaren helburuen eta benetan duen funtzioaren artean inkongruentzia bat dagoela ikus dezakegu. Izan ere, praktikarekin ikusten da gaur egungo helburua merkatutik kanpo kokatzen diren subjektuak soldatapeko lanera kondenatzea da erroko talka hauek saihestu eta merkatuak errentagarritasun gehiago lortzeko.

Bukatzeko, kontrol soziala sistemaren funtzionamenduraren oinarri nagusia izanik, ez dugu posible ikusten honekin bukatzea, ez baitauek gure helburua betetzeko beharrezkoak diren baliabiderik. Horregatik, uste dugu gure inguruko espazio txikietan harremantze ereduak eraldatzen, maitasunean oinarritutako baloreak zabaltzen eta guregana

laguntza eske datozenak gurekiko berdintasunez tratatzen hasi beharko ginatekeela. Nolabait, gure arteko menpekotasunak eta botere harremanak ezabatuz ordena eta kontrola gutxitzeko bide bat izanik.

## 7.BIBLIOGRAFIA

- Aranzabal, Oier.(2010). Azterketen osteko astelehenaz eta unibertsitate ereduaz ZUZEU.
- ARBUÉS, Elena (2011): La educación para la ciudadanía en el sistema educativo español. Un proyecto pedagógico para la educación secundaria. Navarra.
- Arriola, Justo.(2016), *A los pies del caballo Narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria*, Euskal Herria: Txalaparta
- Arriola, Justo (2018koabenduaren1a) “A los pies del caballo. Narcotráfico, heroína y contra insurgencia en EH”. *Naiz*.

[https://info7.naiz.eus/es/info\\_i7/20161206/a-los-pies-del-caballo-narcotrafico-heroína-y-contrainsurgencia-en-eh](https://info7.naiz.eus/es/info_i7/20161206/a-los-pies-del-caballo-narcotrafico-heroína-y-contrainsurgencia-en-eh)

- Bermejo Sanz, Celia (2016), *Trabajo Social como instrumento institucional de control social*. Facultad de trabajo social, Universidad de Valladolid, Valladolid.
- Crespo,Francisco Javier.(2014) *Creadores de opinión pública ,diseñadores de comportamiento*.Universidad de Murcia, Murcia.
- Dewey, J. (1998): *Democracia y Educación*. Madrid: Ediciones Morata.
- Eizaguirre, Natxo (2017). Gaur egungo Hezkuntza sistemari kritika. ZUZEU.
- Epelde, M. (2016), Adin nagusitasuna betetzen dutenean zer? Gazte etorkin tutelatu ohien gizarteratze erronka kontrako testuinguru sozioekonomiko batean: *Soziologia eta Zientzia Politikoen aldizkaria*. 46-70.or.
- Gabaldón, L. (1987). *Control social y criminología*. Caracas, Venezuela: Editorial Jurídica Venezolana.



- Gerver, Richard (2018): Aprendeos más hasta los 5 años que en el resto de nuestras vidas. El Día.
- Gil de San Vicente, Iñaki (2018): Debate sobre la subjetividad de la juventud trabajadora. *Borroka Garaia da*.
- Giocovic, Igor.(1999): *Del Control Social a la Política Social. Los jóvenes y la rebeldía* (Pag 4). Viña del Mar: Ultima Decada
- Guttman, Amy.(2001):*La educación democrática. Una teoría política de la educación*.Ediciones Paidós: Buenos Aires.
- Hezikidetza. Wikipedian. 2018ko abenduaren 1ean eguneratua. 2018ko abenduaren 3an recuperatua [https://eu.wikipedia.org/wiki/Hezikidetza#Heziketaren\\_helburuak](https://eu.wikipedia.org/wiki/Hezikidetza#Heziketaren_helburuak) -n.
- Luxemburg, Rosa(1912).*Introducción a la economía política*. Edicions Internacionals Sedov
- Macionis y Plummer (2007): *Sociología, Teorías sobre el delito y la desviación* (534) Madrid: Universidad Complutense.
- Macionis y Plummer (2007): *Sociología, Teorías sobre el delito y la desviación* (528-529) Madrid: Universidad Complutense.
- Morán Carrillo, J. M.; Flores Sánchez, M. (2018) *El Trabajo Social como forma de control: un análisis desde la perspectiva de la Epistemología histórica*. Cuad. trab. soc. 31(2), 321-331.
- Moreno, Pilar (2001). *Psicología de la marginación social: Concepto, ámbitos y actuaciones*. Málaga : Aljibe.
- Picazo, Manuela.(2014) *El discurso religioso como ideología y su reflejo en los medios de comunicación social. 1-5*(Doktoradutzako tesia).
- Picazo, Manuela.(2014) *El discurso religioso como ideología y su reflejo en los medios de comunicación social*. (Doktoradutzako tesia). *Universi* 12-15.
- Rei, Pepe.(1993), *La red Galindo*, Euskal Herria: Txalaparta.
- Sandoval, Mario. (2005): *Jóvenes y Exclusión*. Chile: Centro de Estudios en Juventud UCSH.
- Torrente D. (1997), *La sociedad policial*. Madrid, España: CIS.
- Vaz, Ane (2017).Gaur egungo Hezkuntza sistemari kritika. ZUZEU.
- Vega, Eduardo.(2017), *El control y la prevención del delito como objeto de la criminología*. Universidad Rey Juan Carlos, Madrid.
- Vega, Eduardo. (2017): *El control y la prevención del delito como objeto de la criminología*. Concepto del control social (Pag 3). Madrid: Universidad Rey Juan Carlos.

